

# KLINGA

APP





# FUNTSEZKO BALIABIDEAK



**Baliabide fisikoak:** gure kasuan hasiera batean bakarrik bakoitzaren ordenagailua izango litzateke, geroago, behar ezkerro lokal bat alokatuko genuke.

- **Ordenagailuak:** Bakoitza ordenagailu bat izango du. Gutxi gorabehera, ordenagailu bakoitza 200€ balio du, beraz, 1000€ gastatuko ditugu ordenagailuetan.
- **LOKALA:** Negozio hau aurrera eramateko, lehenengoz ez da beharrezkoa lokal bat edukitzea APP bat delako eta bakoitzak bere etxetik lan egin dezakeelako. Eta bilerak egiteko beharra izatekotan, guztiok batera leku lasai batean geratuko ginateke, esaterako: norbaiten etxe bat edo taberna egoki bat. Baina denbora pasa ahala, gure negozioa ondo badoa eta hazi ahala, bulego txiki bat alokatuko dugu. (472€/hilabete+129€-ko segurua) (Eleizalde kalea, Sopela, 48600)



## **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**

Julenek dauzkan ezagutzak eta erraztasuna informatikan, APPa eta Web orrialdea egunera eramateko erabiliko ditu. Onintzek kontuak eramateko erraztasuna duenez, APParen kontuak berak kudeatuko ditu. Leire jendearekin hitz egiteko eta adostasun batera ailegatzeko erraztasuna duenez, berak arduratzen da hornitzaileekin kontaktatzen. Eta bukatzeko, Aingeruk eta Ibaik publizitateari buruzko jakintzak erabiliko dituzte gure aplikazioaren publizitatea kudeatzeko.

**Finantza-baliabideak:** Gure aurrezkiak eta bankuari eskatutako mailegua. Aplikazioa sortzeko, baliabide guztiak kontuan hartuz, 16200€ behar izango ditugu. Orduan, gure aurrekontuan 5000€ ditugunez, 11200€-ko mailegua behar izango dugu. Gainera, lokala ez dugu kontuan hartu, denbora joan ahala beste mailegu bat behar dugun ala ez ikusiko dugu.

